

BALOREZKO PROPOSAMENA

Proiektu honen helburu nagusia elikagaien erabilera desegokia murrizteko eta hauek ahalik eta gehien aprobetxatzeko sortu dugu. Ikustekoa da, munduko arazo larrietako bat gosetea dela, milioika pertsona hiltzen baitira arazo honengatik. Arazo honi aurre egiteko soluzio onenatarikoa, gure elikagaien kantitatea kontrolatzea da, ahalik eta gutxien alferrik ez kontsumitzeko, eta hemen sartzen da gure produktua.

Askori, ahaztu egiten zaie edo ez zaie elikagai guztiaren kontrola eramatea gustatzen, horregatik, gure partez lan aspergarri hori egingo duen makina txiki bat sortuko dugu, gure kalkulu guztiak berak eraman ditzan. Esan bezala, tamaina txikia izango duenez eta hozkailuan bertan ezarrita joango denez, ez du espaziorik okupatuko.

Kezka larriak sortzen dituen beste gai bat prezioaren kontua da. Gure makina familia guztientzat dago zuzenduta eta horregatik guztientzat eskuragarria izateko, prezio kantitate normal bat jarri diogu.

Balorezko proposamena, bezeroek gure enpresan sinesmenak izatea da, hau da gugan konfiatzea. Horretarako gure produktuaren abantailak eta zertan bereizten den besteengandik azalduko dugu:

Gure produktua makina bat da, hozkailuak duen gehigarri bat, hain zuzen. Hozkailuan dauzkagun produktuen usteltze data zehazten digun gailua da. Produktu bakoitzak bere kodea duenez (marradun kodigoarekin nahikoa da), produktu hori noiz egin den eta noiz txartuko den zehazten digu, usteltze data gerturatzen dihoan enean hozkailuak abisatu egingo digu eta bertan produktu horrekin zer egin dezakegun zehaztuko digu, errezeta desberdinak produktu horren inguruan.

Gure produktua zertan desberdintzen da beestengan?

Produktu berria denez, berritzailea eta erakargarria da kontsumitzailearentzat.

Dirua gaizki ez erabiltzeko eta elikagai horiek modu desberdinean aprobetxatzeko modu ezin hobe.